

19/11 IRIZPENA

Nélida Zaitegi, lehendakaria
Xabier Aizpurua
Ainara Ibañez
Ana Marta Iriarte
M^a Teresa Ojanguren
Begoña Pedrosa
Eva Blanco, Idazkari Teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2019ko urriaren 3ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta HHEko ikastetxe publikoetan 2019-20 ikasturterako maisu-maistren LPZk arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.**

I. AURREKARIAK

EAEko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legeak lanpostuen zerrendak arautzen ditu II. tituluaren I. kapituluan, irakaskuntzako funtzio publikoaren egitura eta antolaketari buruzkoan; zerrenda horien oinarritzko printzipioak adierazten ditu, baita zerrendak egiteko jarraitu beharreko prozedurak ere.

Parametro hauek identifikatzen dituzte dekretu honi erantsitako zerrendetan azaltzen diren lanpostuak: espezialitatea, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasuna. Hizkuntza-eskakizunak hizkuntza-ereduen arabera zehazten dira, martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuan (apirilaren 2ko EHAA) ezarritako proportziak beteta; dekretu hori urtarrilaren 18ko 6/2000 Dekretuak aldatu zuen (urtarrilaren 20ko EHAA), eta arautu egin zuen nola dekretu hori irakasleen lanpostuei. Helduen ikastetxeetako lanpostuei hizkuntza-eskakizunak jartzeko, uztailaren 23ko 182/2002 Dekretuan ezarritako irizpideak jarraitu dira.

II. EDUKIA

Dekretu proiektu honek 3 artikulua, 9 xedapen gehigarri, bi azkenak eta 6 eranskin ditu.

1. artikulua I.etik VI.era bitarteko eranskinetan jasotako lanpostu zerrendak (LPZ) onartzen ditu.

2. artikulua irakasle ibiltariei buruzkoa da eta 3. artikulua lanpostu zerrenden hornikuntza-sistema zein izango den ezartzen du.

Lehenengotik zazpigarrenerako xedapen gehigarriek soldaten osagarri orokorrak eta kargu eta erantzukizunen arabera esleitutakoak jasotzen dituzte. Zortzigarren

xedapen gehigarriak Lehen Hezkuntzako aholkulari-postua eskuratzeko baldintzak jasotzen ditu. Bederatzigarren xedapen gehigarriak zehazten du postu guztietarako behar dela sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren bategatik epai irmoz kondenatuta ez egotearen ziurtagiria, Adin txikikoen Babeserako Legearekin bat etorritik.

Azken lehen xedapena errekurtsioak jartzeari buruzkoa da, eta bigarrenak esaten du noiz sartuko den Dekretua indarrean.

II. PLANTILLEN ANALISIA

Dekretu proiektu honetan lantzen diren Maisu-maistren Kidegoko lanpostu zerrendek (LPZ) eragina dute Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, Helduen Hezkuntzako (HHE) ikastetxeetan, Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuan eta Lurralde Ordezkaritzetan.

Lanpostu Zerrenda horietako plaza kopurua 198 lanpostutan handitu da, irakasleen funtzionarioen mahai sektorialaren 2018ko maiatzaren 14ko akordioan eta 2020rako aurrekontuen proiektuan jasotzen den bezala. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan 67 plaza gehiago daude, Lurralde Ordezkaritzetan 152 lanpostu gehiago daude. eta HHE ikastetxeetan 19 gutxiago.

Erljio katolikoko (149) maisu-maistren plaza kopuruan bi gutxiago daude eta iazkoen berdina da eta erlijio islamikoko plaza kopurua (4). Plaza horiek ez dira plaza osoak, langile osagarrien taulan ageri den bezala.

Patronatoen plazak ez dira sartzen lanpostuen zerrendan, kontsideratu delako hezkuntza bereziko ikastetxe pribatuei dagozkiela eta orain Lurralde Ordezkaritzaren lanpostuetan daude sartuta.

Poltsa-Ordezkaritza ikastetxeetako lanpostuak ibiltariak dira edo hainbat ikastetxeren artean partekatutak. Lanpostu horietako maisu-maistrak ez daude ikastetxe zehatz bati atxikita, baizik eta Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza bakoitzari atxikitako plazak dira, eta ordezkari horiek esleitzen dizkiete beren zereginak eta ikastetxeak. Horien artean daude etorri berria diren pertsonekin lan egiten duten irakasleak (hizkuntza indargarriko irakasleak, kulturartekotasunekoak) proiektuak garatzeko irakasleak (Eleaniztasuna), eta logopedak. "Jangelako arduradunak" izeneko plazak desagertu egin dira kontsideratu delako bere funtzio nagusiak ez dira dozentek.

LPZ organikoetako maisu-maistren plazak, jomuga motaren arabera. 2018-189eta 2019-20

<i>Jomugak</i>	<i>2017-18</i>	<i>2018-19</i>	<i>Δ Azken ikasturtea</i>
Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako postuak	8.881	8.948	67
Erlijio katolikoko irakasle postuak	151	149	-2
Erlijio islamikoko irakasle postuak	4	4	0
HHE ikastetxeetako postuak	382	363	-19
UHEI	9	9	0
Lurralde Ordezkarizetako postuak	500	652	152
LPZ organikoa guztira	9.927	10.125	198

Espezialitateei dagokienez, Haur Hezkuntzakoak (-10) murriztu dira gehien, aldiz, Lehen Hezkuntzan (21). Ingelesa(13) eta Pedagogia Terapeutikokoan (18), ugaritu egin dira, halaber, Aholkularienak eta Ikastetxeak Konfiguratu Beharrekoak ugaritu egin dira.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako maisu-maistren kidegoko LPZ organikoko espezialitateak. 2018-19 eta 2019-20 ikasturteak.

<i>Jomugak</i>	<i>2018-19</i>	<i>2019-20</i>	<i>Δ Azken ikasturtea</i>
Haur Hezkuntza	2.460	2.450	-10
Lehen Hezkuntza	3.494	3.515	21
Euskara	15	15	0
Ingelesa	583	596	13
Gorputz Hezkuntza	360	362	2
Musika	293	296	3
Aholkularia	289	297	8
Pedagogia Terapeutikoa (PTE)	647	665	18
Entzumena eta Lengoaia (ALE)	156	160	4
Ikastetxeak Konfiguratu Beharrekoak (CPC)	584	592	8
LPZ organikoa guztira	8.881	8.948	67

“Ikastetxeak konfiguratu beharreko postu” gisa tipifikatutako en edukiak ikasturtez ikasturte aldatu daitezke ikastetxe bakoitzeko premien arabera, betiere Administrazioak behar bezala justifikatzen baditu. Izaera aldakor horren ondorioz, ezin dira behin betiko hornitu lehiaketa arrunt baten bidez.

Plantilla organikoen *euskalduntzeari* bagagozkio, HE2 duen irakasle portzentajea mantentzen da, %98,6koa da Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, eta HHEko irakasleen artean azken ikasturtean 10,4 puntu hazkundera du . UHEIko lanpostu guztiek, salbu batek, dute esleituta HE2 eskakizuna (%90), eta erlijio katolikoko irakasleen lanpostuetan %96k eta ordezkarizetako postuetan %99k.Erlijio islamikaren kasuan %50k esleituta dute HE2.

Maisu-maistren kidegoko plantilla organikoetan HE2 esleituta duten plazen portzentajea, ikastetxe edo jomuga motaren arabera. 2018-19 eta 2019-20 ikasturteak.

		2018-19	2019-20	Azken ikasturtea
Haur eta Lehen Hezkuntza	2HErekin	8.759	8.826	67
	Guztira	8.881	8.948	67
	2HE	98,6%	98,6%	0
HHE	2HErekin	250	275	25
	Guztira	382	363	-19
	2HE	65,4	75,8	10,4

Lurralde Ordezkaritzetan kokatutako 652 plazak ikastetxeetako *plantilla osagarriko* 974 postuen barruan daude. Izan ere, plaza horiek berez ez daude ikastetxe zehatz bati atxikita modu iraunkorrean.

Normalean plazaren beraren izaeratik gertatzen da hori, halako plazak ikasleen ezaugarrien arabera egoten baitira eta, beraz, plaza aldakorak dira. Bigarren arrazoi bat ere bada, plazen partzelazioa hain zuzen. Sarritan plaza erdi bat edo plazaren herena esleitzen zaio ikastetxe bati, eta egoera horretan daude hain zuzen plantilla osagarrian sartzen diren 68 PTE plazak. Bestalde, Ikasturte honetan kontzeptu berriak jasotzen dira(Bikaintasuna eta Hezkidetza, lehen ordutegi kredituen barruan sartzen ziren, eta IBH (hezkuntza beharren indizea) sartzen da.

Erljioko plazen kasuan, oro har osatu gabeko plazak direnez, ez dira sartzen plantilla osagarriaren batuketan, ez eta ratioen kalkuluan.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako plantilla osagarriko plazen banakatzea 2018-19 eta 2019-20 ikasturteetan

Plaza mota		2017-18	2018-19	Δ Azken ikasturtea
1. taldea	Eskolaz kanpokoak			
	Jangela - ikastetxea	78,5	61	-17,5
	Hizkuntza indargarrirako irakasleak (HII)			
	Kontzeptu desberdinak *	218	228	10
	Bikaintasuna)	16	15	-1
	Hezkidetza	4,5	0,5	-4
	IBH	153	166	13
2. taldea	PTE	65	78	13
	2. taldeko beste batzuk	303	500	197
Plantilla osagarria guztira		816	870	181
	Erljio katolikoa	80	77	-3

*joan den iksturtean hainbat kontzeptu jasotzen zirens (jangela-poltsa,laguntza zuzendaritza, interkulturalasuna)

Ondorioz, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako funtzionamendu plantilla osoak 9.922 maisu-maistra barne hartzen ditu, aurreko ikasturtean baino 10 gutxiago.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako funtzionamendu plantillen bilakaera. 2018-19 eta 2019-20 ikasturteak.

	2018-19	2019-20	Δ Azken ikasturtea
LPZ organikoa	8.881	8.948	67
Plantilla osagarria	1.051	974	77
Funtzionamenduko LPZ	9.932	9.922	-10

Alderatzen baditugu plantilla eta ikastetxe horietan matrikulatu den ikasle kopuruaren hazkundera (aurreko ikasturtean baino 1.084 gutxiago), ondorioztatu daiteke ikasgelako irakasle ratioa (1,75), ikasgelako ikasle ratioa (18,69) eta irakasleko ikasle ratioa (10,8) ia berdin mantentzen direla aurreko ikasturtearekiko.

Ikasle, irakasle eta unitateen eta horiei dagozkien ratioen bilakaera Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan 2018-19 eta 2019-20 ikasturteetan.

		2018-19	2019-20	Azken ikasturtea	
Unitateak edo ikasgelak (aurre-matrikula)	Haur Hezkuntza, 2 urte	615	614	-1	-0,16%
	Haur Hezkuntza, 2. zikloa	1.623	1.599	-24	-1,48%
	Lehen Hezkuntza	3.415	3.404	-11	-0,32%
	Hezkuntza Bereziko ikasgela egonkorak	38	38	0	0,00%
	Unitateak guztira	5.691	5.655	-36	-0,63%
Ikasleak (aurre-matrikula)	Haur Hezkuntza, 2 urte	8.407	7.896	-511	-6,08%
	Haur Hezkuntza, 2. zikloa	29.932	29.795	-137	-0,46%
	Lehen Hezkuntza	68.325	67.883	-442	-0,65%
	H. Berezikoko gela egonkorak	156	162	6	3,85%
	Ikasleak guztira	106.820	105.736	-1.084	-1,01%
Irakasleak: funtzionamendu plantilla		9.696	9.932	-295	
Irakasle / ikasgela ratioa		1,69	1,75	0	
Ikasle / ikasgela ratioa (1)		18,66	18,77	-0,08	
Ikasle / irakasle ratioa		11,04	10,76	-0,11	

(1) Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako ikasgelako ikasle ratioa gehienez 23,7koa da, eta ratio hori Lehen Hezkuntzako ratio handienaren (25), Haur Hezkuntzako 2. zikloko ratioaren (23) eta 2 urteko mailaren (18) arteko batez bestekoaren emaitza da.

III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Dekretu proiektuko datuen banakatzean ikus daiteke Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako plantilla organikoak 67 plaza gehiago dituela, eta HHEko maisu-maistrak 19 gutxiago ditu..

Ikusten da plantilla organikoa handitu egin dela, eta osagarria gutxitu egin da; gure ustez hobekuntza bat da.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako funtzionamendu errealeko plantillei dagokienez, aurten 10 plaza gutxiago daude, baina aurre-matrikulan 36 gela gutxiago eta 1.084 ikasle gutxiago daude kontuan hartuz, ikasgelako irakasle ratioa, irakasleko ikasle ratioa eta ikasgelako ikasle ratioa mantentzen dira

Askenik, aurreko irizpinean jasotzen zen bezala kontseiluak gustora dago IBH (Hezkuntza Beharren indizea) sortu delako eta egoera bereziki sailak dituzten ikastetxei laguntza gehigarria emateko erabiltzen hasi delako. Kontseiluaren ustez beharrezkoa dela baliabideen eraginkortasuna baloratzea beharrezkoa dela eta horretarako nola erabiltzen diren ezagutu behar da. Bestalde, antzeko baldintzetan dauden itunpeko ikastetxeei ere esleitu beharko litzaizkieke.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2019ko urriaren 3a

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: NÉLIDA ZAITEGI DE MIGUEL

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA